


ZARR

**BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
8n. ZENBAKIA**

**MARTIA
—1978—**



ZUGAZPEAN, LEGEAK

***Olako eginbearrak artzera,
oitu zaitte.
Urte bi igaro baiño len,
lau laguntza barri.***

Gauzetarako ikuspegi barria, artu-emonak izateko era barria eta geroak gaur eskátzen dauan laguntza-moltzo osotua-goa eskintzea aitatzen dogunean, geuk daukaguzan aurrerapen gurariai egitezko erantzuna emoteko baietza agertzen gagoz.

Esaterako, dana gertu daukagu eperako dirua ezarteko libretak izan daitezcan.

Laguntza barria da ori eta laster emongo doguzan laguntza askoren artean, lenengoa.

Gure laguntzak zabaltze ta aldatze au, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxak guztiontzat etorkizun ederrago bat egitea gura dauala adiazoteko bidea izango da.

Etorkizuna, geroa, gaur asi bear dogu.

Biar emen izango da.



**BIZKAI'KO
AURREZKI KUTXA**

Geroa, bertan daukagu.



EUSKALDUNEN EKANDUA

Euskaldunak ez gara inoiz laterri
bakar bat izan, ez gara inoiz agintari
bakar baten menpean egon, geu bakarrik.

Ain sakona izan da gure artean demokrazi zarra.
Ain kontuan artu doguz gizonaren berezi tasuna, sandia-
ren duintasuna, auzoen jabetasuna, errien nortasuna!
Erritik gorako alkarteak ez dira inoiz izan indartsuak, agintaritza
gogorrekoak.

Ba euken antxiñako euskaldunak be, batasuna, baiña batasun ori
odoletikoa eta izkuntzan agertzeko zan.

Ez zan agertzen lege bardiñetan, baiña bai legeak egiteko bideetan. Ez ziran
guztiak bardin-bardiñak, baiña bai antzekoak.

* * *

ESKUALDE GUZTIETAN

Euskaljerri zarrari begirutzen ba'dautsagu, legegille erakundeak antz-antzekoak
dira bazter guztietan; Sendietan buru diranak, etxe-jaunak, eleizpean alkartuta eta
Bizkai'koak, Gernika'n, Bermeo'n, Larrabetzu'ko Goiko Eleizan, Aretxabala-ganean; Gi-
puzkoa'koak, erriak aldatuez; Araba'koak, Lakua-zelaian Arriaga'ko kofradiak; Laburdi'koak
Urtariz'ko arizpean; Zubero'tarrak Maule'n eta Benaparra'koak Donibane Garazi'n egiten eben
Gero oiturea aldatu zan, esaterako Naparroa'ko erreñua sortu ta «Corte» a sortu zanean.

* * *

BERBAZKO LEGEAK

Ez gara euskaldunak egundo ba letra-zaleak izan, berbeari emon dautsagu beti gerantzi
aundia.

Bazkideen arazoai erantzuna emoteko legeak berbaz egiten ziran. Ez ziran
egundo idazten. Guztiz geroagokoa da, eta Gaztelako erregeari jakin-
azoteko eta zer zin egin bear eban esateko idatzi ziran.

Lege orreik bete-azoteko, geroago, Batzarraren ordezkariak izanda-
tuten ziran eta ortik sortua da gaurko Aldundi edo Diputaziñoa.

* * *

JAUNAREN ARAZOA

Batzar orreitan, arerioz inguratuta bizi ziran euskaldun
zarrak (gogoratu arerio lez erromatarrak, fran-
koak, bizigodoak, arabeak, inguruko
erreñuak) gudarientzat buruzagi bat
bear ebela ikusi eben laster.

Orixe da, asieran, Jaun bat
aukeratzeko zioa, gudarien
buruzagi izateko.

Geroago jaun orrek aginte-
eskubideak lortu zituan eta
ortik etorri dira gure Erriaren
zori txarrak: Jaunak aundi
ziranean, ingurukoen bekaitza
sortu eben eta inguruko orreik
jauntasunaren jabe egingo
dira, ezkontza-bidez edo gu-
daz eta itunez.

Bizkaia Gaztelagaz eta Bena-
barra Paris'egaz ezkontza bi-
dez alkartu ziran, Araba ta
Gipuzkoa, itunaren bidez; Na-
parroa guda-bidez galdu zan...

Baiña beti be legegintzarako
eskubidea ez zan galtzen,
buru-jabetza osoan geratzen
zan, zaurituta baiña.

* * *

LEGE ZARRAK EUSKERAZ

Euskaldunen batzar orreitan, asikeran ez ba'zan
be gerotxuago, erderaz egiten zan berba. Orretan be gaisoa
ete daukagun euskaldinon!

Eta Lege Zarra idatzi zanean be, jakiña, erderaz idatzi zan eta erderaz baiño ez dago
orain arte.

Entzun dogu, gaur Bizkai'ko lege Zarra euskeratzen diarduela. Ordua zan!

Eta beste eskualdeetakoak be euskeratu ta errez lortzeko eran argitaratu bear litzakez. Izango dira
gaiztasunak, baiña zabalduko al da gure Lege Zarra'ren iturri garbi au, Erriak bere jatorria ezagutu dagian.

LEGE

ZARRAK

Arantzazu'ko Egutegia



ASKOREN IRAKURGAIA

Euskaldunak oso alperrak izan gara beti gure izkuntzaz idazten diran idazlanak irakurtzeko, bear ba da aukera gitxi izan dogulako, baña ba dago gauzatxo bat danok irakurri doguna ta pozik gañera: «takozko» euskerazko egutegiaren eguneroko orritxua, oneri buruz dator nire idazlan au.

EGUTEGI BI

Danok ezagutu dogu Arantzazu'ko Andra Mariaren ospetsua, batez be baserritarrak, oneik beste ezer irakurten ez ba'eben be, egutegiaren orritxua bai, ta gustora.

Gero, orain bost edo sei bat urte dala, Erri-egutegi izenekoa kaleratu zan, Donostian, eta onartua izan zan, batez ere garai aretan Arantzazu'koa euskera batuan egiten zalako.

Arantzazu'koak, itxuraz, laster konturatu ziran jendeak ez ebala onartzen euskera batu a ta erri-euskeraz (bizkaieraz) argitaratzen asi ziran barrero, jakiña, bizkaieraz bizkaitarrentzat.

Erri-Egutegiak lau bat urte iraun ebazan, andik dirurik ez edo eztakit zer dalata il egin zan.

EGUTEGI ALDATUA

Igez Arantzazu'koa erosi neban eta nire ustez ondo etorri zan. Aurten, eroatera joan

naz baña liburutegian Arantzazu'ko egutegi barri bategaz aurkitu naz, igezkoa baño dotoreago bear bada ta gañera zabalkundea be ba dakar. Alan da guztiz, iritzi batzuk emongo dodaz, zuzenak ba dira gogoan artzeko edo bestelan ba...

ASTEAN GAI BAT

Esan dodan lez, egutegia dotorea dator-kigu baña alan da guztiz ostopo bat aurkitzen dausat:

Aurten asteko zazpi egunak orri zabal batean datoz danak batera, beraz, ezin dogu egun bakoitzeko orritxua irakurri.

Beste alde batetik egutegiaren gora berak irakurri gura ba doguz, astean bein bakarrik irakurri geinke.

Zenbat euskaldun oitu dira euskeraz irakurtzeko egutegiaren eguneroko orritxuaren esker?

Asko ta asko bai.

LENGOA NAIAGO

Nere ustez aurtengo egutegia polita da ta ondo dago, baña ondoren geiago ataratzeko, ta euskaldunen artean irakurtzeko zaletasuna ugaritzeko, datorren urtean, lengo tankeran egingo neuke. Gañera «takozkoa» edozein orma-egutegi gañean ipintzen da, ta olan eztogu leku berezi baten bearrik.

ZANGRONIZ

Suizkilluz Erailda

*Ba da egunsentia...
Izkilla dunbadak ildegin aldian.
eZer izan ete-dae Diñot neure artian.
Geyago ezta entzuten ezer, dana ixilla.*

*Baña zoritxarrez, eguberdi aurrian,
Diñoste lagunak: barriz gaur goizian,
Berton erail dabe beste gudari bat.
Eskuak lotuta kordelaz, atzian
Euzkadi goraltzen, il da gudaria.*

*Eziña, burutik aldendu irudia.
Azkenez iiiiuntzez, ba nua ildegira.
Barru-ormak, itzalaz, aztiro begira...
Ba dakust tiruaz zulatuta arriak.
Zulo batzuk goyen, buruan aldian,
Bestiak, berago. Onek, biotzian...*

*Biotza estuturik, malkuak begian.
Belaunez jausten naz lur onen ganian.
Ametsetan dakust klabelin guria
ostotxu makurrak, zutiña ausia,
Burua berantza ta beren azpian
Odolaz eindako potxingo gorria*

*Alde baten gaba ta ekaitza igesika,
Klavelin geizpe, bakarrik da oziña.
Gero ta andiago, odoln ganian
Argituten dagoz Eguzki-dizdirak.*

UTARSUS

GALDEGAIA

EUSKEREAREN BEREZITASUNA

Euskerak aparteko berezitasun bat dauko. In-guruko izkuntzak ez daben berezitasuna. Esaldiari bizitasuna, txairotasuna eta dotoretasuna damotsion berezitasuna.

Adibidez:

—*Iñaki dator gaur aitagaz.*

—*Gaur dator Iñaki aitagaz.*

—*A itagaz, gaur dator Iñaki.*

Iru esaldiotan berbak edo esaldiaren zatiak bardiñak dira. Esangurea, alan be, ez da bardiña. Aditzaren aurre-aurrean zein berba ezarten dan eta esangurea guztiz aldatzen da euskaldun bantentzat.

Leenengo esaldiak, *nor* datorren esan gura dau, au da, Iñaki dala gaur aitagaz datorrena.

Bigarrenak Iñaki *noz* datorren adierazoten dau, au da, gaur datorrela, ez biar edo beste egunen baten.

Iruugarrenak Iñaki *nogaz* datorren dager, au da, aitagaz datorrela.

Gazteleraz, barriz, ezin adierazkizun berezi ori azaldu. Zein. *Iñaki viene hoy con el padre* esan zein *Hoy viene Iñaki con el padre* esan bardin da. Esangura berezi ori agerrazoteko, beste berbabide bat, beste itz joko bat bear:

—Es Iñaki quien viene hoy con el padre.

—Es hoy cuando viene Iñaki con el padre.

—Es con el padre con quien viene hoy Iñaki.

Euskeraz askoz be errezago, dotoreago, txai-roago agerrazoten dogu adierazkizun berezi ori: aditzaren aurre-aurrean ipiñi eta kitto.

GALDEGAIA ZER DAN

Esan dogunak badamosku argirik galdegaia zer dan antz emoteko: *esaldiaren adierazkizun nagusia*.

Au zer izan daiteken azaldu dagidan aalik eta laburren eta argien.

Esakuntza baten bi, iru (edo geiago) esankizun izan daitekez. Gorago aitaturiko iru esaldietan, esate baterako, *lau* esankizun edo jakinkizun dagoz:

1.—Gaur *nor* datorren aitagaz: *Iñaki*.

2.—Iñaki aitagaz *noz* datorren: *gaur*.

3.—Iñaki gaur *nogaz* datorren: aitagaz.

4.—Iñaki'k gaur aitagaz *zer* egiten dauan: *etorri*.

Euskeraz diardugunean, baiña, lau jakinkizun orreetatik bat, batez be, agerrazoten dogu. Esankizun bat nabarmentzen da, beste guztien gaiñetik bat agertzen. Zer adierazo nai dogun eta axe.

Esaldiaren esakizun eta adierazkizun nagusi oni Azkue'k «elemento inquirido» deritxo. On Manuel jaunak «concepto primordial». Beste batzuk beste modu batera. Adierazkizun nagusi ori euskeraz esateko GALDE-GAIA itza aspaldion onartua izan da-eta, guk *galdegaia* deritxogu.

Leenengo esaldian, beraz, esaldiaren adierazkizun nagusi *Iñaki* izena da. Bigarrenean, *gaur* aditz-ondoa. Iruugarrenean, *aitagaz*. Eta laugarrenean, *etorri* aditza.

GALDEGAIAAREN ERABILKERA

Esaldiaren adierazkizun nagusia edo galdegaia dan itza esaldiaren zein lekutan ezarri? Ona euskeraz ondo idazteko eta berba egiteko garrantzi aundi-aundiko itauna.

Altube maixu bikaiñak (beste batzuk be bai) arau au damosku: aditzaren aurre-aurrean ezarri, bitartean besterik bago:

—*Iñaki dator gaur aitagaz.*

Gaur dator Iñaki aitagaz.

A itagaz, dator gaur Iñaki.

Esaldiaren beste zatiak, barriz, galdegaiaren eta aditzaren aurrealdean zein atzekaldean ezarri daitekez. Ikusi:

Iñaki dator gaur aitagaz (ondo).

edo: *Gaur Iñaki dator aitagaz* (ondo).

edo: *Aitagaz gaur Iñaki dator* (ondo).

edo: *Aitagaz Iñaki dator gaur* (ondo).

Era berean beste esaldietan.

Esaldiaren aditza jokatu bago dagoanean bakkarrik austen da arau au, diñosku maixuak (Erderismos, 12 or.). Adibidez:

Nok (galdegaia) ari *esan?*

—*Zegaitik* (galdegaia) beti umekerietan *ibilli?*

Galdegaia aditza bera danean zer egiten dan eta beste jakingarri batzuk urrengoan azalduko doguz.

SAMARTINTXIKIREN LANBIDEAK

NEKAZARITZA

Samartintxiki, Muzkia mendira, basajaunak bizi ziran tikira, joan ei zan bein.

Basajaunak gari-pillo aundiak artzen ebezan, euren inguruko bazterretan.

Garipilloen gaiñetik saltoka ebiltzan Basajaunak. Urreratu jaken goiz aretan Samartintxiki eta esan eutsen:

—Baietz zuen besteko saltoak egin !

—Ezetz !-besteak.

Eta or dator gure Samartintxiki sekulako abiadea artuta, ariñeketa bizian, baiña gari-pillo erdi-erdira jausi zan, berak gura ebala jausi be. Eta bere abarka zabalak gari-aziz bete-beterik zirala, etxera joan zan, basajaunen barre-santzoen artean.

Oneitariko bat konturatu zan beranduegi. Bere aizkorea jaurti eutson indar guztiaz, baiña Samartintxiki'k, zirkin eginda, etxeraiño jarraitu eban, bere abarkak gari-aziz beterik zituala.

GARI-ERAITEAREN SASOIA

Azia beragaz eukan, baiña ez ekian noz eta zelan erain.

Zelatan jarri zan, orduan, Muzkia'ko mendi-inguruan. Eta an egoala, kanta au entzun eutson basajaun bateri:

ORRI-URTETE, ARTO ERAITE

ORRI-ERORTE, GARI-ERAITE

SANLORENTZOTARA, ARBI-ERAITE

ZERRARITZA

Zerra-lana egiten be ba ekien basajaunak, baiña Samartintxiki'k ez. Onek mutilla, bialdu eban eurakana oiuka:

—Samartintxiki'k zerrea egiten ikasi dau!

—Bai?, erantzun eutson basajaunak —gaztaña-orriari begiratuko eutsan, ez da?

—Ez ! Baiña laster begiratuko dautso-erantzun eban mutillak.

Barri au mutillak bere nagusiari adierazo eutsan eta Samartintxiki'k lenengo zerrea egin eban geztaiña-orriari begiratuta.

Basajauna, gauaz, Samartintxiki ren olara etorri zan eta zerra barria ikusi eban. Asmakizun au apurtutearren ortzak okertu eutsazan, baiña zerreak ortza okerrakaz obeto ta ebagi zabalagoaz ebagiten eban.

SOLDALARITZA

Beste lanbide baten billa ebillan arduratsu Samartintxiki bere sutegian, burdinsoldaketaren billa.

Basajaunak ba ekien ori be, eta eurakana bialdu eban bere mutilla eta onek esan eutsen:

Burdin-soldaketea be asmau dau Samartintxiki'k !

—Bustiñagaz igurtziko ditu bere burdinzatiak, ez da?

—Ez ! Baiña laster igurtziko ditu.

ERROTARITZA

Beste lan bategaz be txarto ebillan Samartintxiki: Bere errota barria ez ebillan ondo.

Aretx-egurrezko ardatza eukan bere erroteak eta erre egiten jakon erabiliaren erabilliaz.

Basajaunen errotea, barriz, ez zan sekula erretan.

Bialdu eban beti lez bere mutilla eta esan eutsen onek:

Samartintxiki'ren errotea Ida-Ida, Idakla dabil bein be gelditu barik !

Bai...? Altz-zurezko ardatza ipiñiko eutson orretarako-erantzun eutson Basajaun bateg.

Oraindik ez, baiña laster ipiñiko dautso !

Eta orrelan zabaldu ei ziran munduan nekazaritza zerraritza, burdin-lanketak eta errotaritza.

EUZKADI'KO JAURLARITZA

NOR LENDAKARI?

Errimiñak jota asi naz idaz-lan au egiten.

Une onetan ez dakigu nor izango dan dalako «pre-autonomi» orren lendakari, baiña lur-ikararen bat ez ba'dator, ez da abertzalea izango, naizta bere iritzietan eta gizatasunean naiko ondo ezagutzen dodan gizon zintzoa izan.

ZERGAITIK ?

«Euzko Gudariak» abestuaz, geienak ikurriñagaz dabilzan aldi onetan, zergaitik ori?

Erantzuna erreza da.

Euzkadi'ko indabak, orain be, Madrilleko lapikoan egosi diralako eta andik, ez len, ez orain eta ez gero, gutzat ezer onik ez dalako etorriko.

Gure akatzik aundiena, gaiñera, geure errakuntzak iñoren lepora jaurti nai izatea da eta oraingoan geure politikoak dira errudun, ori autortu bearra dago.

JAURLARITZA BAZTERTUTA

Zergaitik?

Euzkadi'ko jaurlaritzaren izena ta nortasuna ez diralako bultzagilletzat erabili.

Gerorako gordeta eukitea obe zala esanez, espainarren alkar-izketan zorabiatu gara; obeto esateko, bertoko espainia-zaleen jokoan, eta onen itza utsa dala lendik ikasita euki bear izan dogu.

SASI-EUSKAL-ZALEEN AMUA

Non egon da, baiña, korapilloaren muiña?

Ba, Naparroa'ko arazoaz kezkatu, aurrean ipiñi dauskuen amua iruntzi dogulako, PSOE ta UCD'ko sasi euskal-zaleen amu disdiratsua!

Autonomi-aurreko lendakaria, «parlamentarioak» aukeratuko ebela onartzean ! Ortxe dago kakoa!

ERRIAREN AUTARKIAK KONTUAN !

Naparroa, oraingo beintzat, kanpoan geratuko zala jakiñik, autarki geien atera dauan alderdiarentzat eskatu bear zan lendakaritza.

Or gogor tinkotu.

Baiña UCD'ko morroiren bat edo beste lagun zalakoan, geroko itzi zan erabaki ori ta ona emen ondoren negargarriak.



Leizaola plazara!

EGUNKARIEN LANA

Beste alde batetik, euskal-zabalkunderako sortu diran egunerokoak be euren alde jokatu dabe.

Or dago, adibidez, PSOE'k, DEIA'n euki dauan auzpo zoragarria.

Sindikal-autezkundearen erdi-erdian, Txiki Benegaz'eri iritziak (bere alde, jakiña) zabaltzeko erea emon jako.

Euzkadi'ko Jaurlaritzaren aolkulari izan ziran gizonen iritzirik ez dau iñork eskatzen. Orain aolkulari barriak jatorkuz parra-parra.

Alderdi Jeltzalearen ingurura iñoiz urreratu ez diranak, jakiña.

Gure zorioneko «sozialismoagaz» erdi burugaldurik gabiltza, abertzaletasuna lenagokoa dala aztuta.

LEIZAOLA PLAZARA

Ea orain egin dogun laprastada onek, bein eta betiko zurtuten gaitun!

Leizaola, tresna zarren kamaran gordeta euki barik, plazako lenen maillara atara bear dogu eta bere inguruan egon diran aolkularieri esku emon.

Jakintzaz eta abertzaletasunez askok uste daben baiño obeto jantzita dagoz... eta or dagoz gure bide-erakusterik onenak.

«Pre-autonomi» eskaz ori dagonerako itzirik, Euzkadiko Jauraritza indartu dagigun.

ARENAZA'tar Josu'k

ZAMAKOLA

ANAI BI

Zamakola'tarrak anai bi izan ziran eta biak ospetsuak: SIMON BERNARDO ta JUAN ANTONIO. Dima'n, amazortzigarren gizaldiaren erdian jaiok.

Juan Antonio'k idatzi eban «Historia de las naciones vascas» izena daroan liburua. Interesgarria benetan, batez be emen lenengoz aberri bat lez Iparraldeko ta Egoaldeko Euzkadi agertzen diralako.

Simon Bernardo eskribaua zan eta Bizkaiaren alde egindako lanakaitik bere anaia baiño ospe diardugu idaz-lan onetan.

Iztun edo izlari ederra zan, bai euskeraz eta bai erderaz.

Iru ordu luzetan jardun eban, bein, Gernika'ko Batzar Nagusian, ordu ta erdi euskeraz eta beste ordu ta ardi erderaz.

Ez zan iñor aspertu eta bere eritxira makurtu-erazo ebazan bertako guztiak.

ARAZO SAKON BI

Arazo garrantzitsuakaitik dogu ain gogoangari gure Zamakola, baiña, batez be, bere eskuartearen erabili zituan arazo bik emon dautsoe Zamakolari gure artean daukan izen aundi ori: Abando'ko kaia edo portu barria ta «Zamakolada» deritxon matxinadea.

Arazo bi orreik ulertzeko, gure lege zarrak eta Eleizate ta Urien arteko burrukea euki bear dira kontuan, batez be Bilbo'ren eta Bizkai'ko beste errien artean izan zan alkar ulertu eziña ta burrukea.

Urien edo «villa» deritxoen legea Logroñotik etorria ta arrotza zan eta ortik artzen eben indarra Bilbo'tarrak eleizatecn aurka.

ABANDO'KO KAIA

Gauzak okertuaz joan ziran Prantziarrak ona, 1793'garren urtean sartu ziran ezkerero.

Ekonomi-batzorde bat sortu zan Bilbo'n gerate orren ondoren, guda orrek sortutako zorrak ordaintzeko bideak billatzeko.

Ara deitu eutsoen Zamakolari, an idazkari izateko. Ez asmo onez antza! Eurakana makurtzen ez ba'zan, erregearen aurrean salatuko eben, makurtzen ba'zan, Bilbo'tar biurtuta euren lagun izango eben.

Ille bete batzuk baiño ez zituan egin Bilbo'n

Zamakola'k: Arin konturatu zan barruan egoan joko txarraz.

Atxaki au jarri eban: Dima'ko Eleizate'tik urrin egoala.

1801'ean Bilbo'n uriolea sortu zan eta ondamenti larriak egin zituan.

Auxe izan zan Zamakola'ren ordua: Ez zala Bilbo kaiarentzat leku egokia azaldu eban eta ba egoala leku egokiagorik asi Abando'tik eta Por

Bilbo'tarrak izan ezik besteak, txaloka artu eben Gernika'n Zamakola'ren itzaldia.

Bilbo'k eukazan eskubide guztiak emon eutsoezan Abando'ko kaiari be.

ZAMAKOLADEA

Ona beste arazo barri bat: Soldaduzka-arazoa. Prantzia'ko gudea amaitu zanean, Iglatera'gaz gudan asi zan España.

Ori zala ta, soldaduzkara deitu ebazan España'ko erregeak mutil guztiak, 1804'garrean.

Bizkaia'k ez eukan gudarosterik; ez eukan soldaduzkarik. Etsaia bertora sartutakoan, 17 urtetik 50 urterakoak euren armak artu eta Jaunaren agindupean jarten ziran.

Auxe zan gudari-legea: Alogera barik joango ziran, baiña Luiando'ko aretxeraño baiño ez. Emendik aurrera joatekotan bi illabeteko alogera ordainduko jaken aurretiaz. Malastu'ko aretx eza-guna egoan an. Aretx barriak gurutze bat eukan aurrean eta idazki au: Emen egoan Malastu'ko aretx zarra, geure lege zarren lekuko kirmena; onaiño etozan Bizkaitarrak euren jaunaren atzetik armaturik, alogera barik bertoraño eta alogeraz emendik aurrera.

Lege ori bete bear zala, zan Zamakola'ren eritxia eta olako gudarostea sortu zan.

Baiña Begoña'ko «matxorriak» jarri jakozan aurka eta bere etxera, Dima'ra joan ziran bere billa.

Auzia erabagiteko, Batzar barria egin zan Gernika'n.

Soldaduzkara ez zan iñor joan eta Madril'dik zigor aundiak etorri ziran eta ango agintariak ipiñi ebazan emen.

Auzia konpontzeko, Zamakola bialdu eben Madril'era, baiña Godoy'k gogor artu eban.

Gaisorik ekarri eben etxera eta gero osatzeko Paris'era eroan be bai, baiña laster it zan Zamakola, Euskal-gizandia.

GERNIKAKO ARBOLA GEIXORIK

ARETXA TA ASKATASUNA

Euskaldunentzat aretxa aspalditik arbola santua izan da. Askatasunaren ezaugarri.

Euskaldunak legeak egiteko, geienetan, aretxaren kerizpean alkartzen ziran.

Labur **din**, Ustaritz erriaren ondoan, «Kapito-arri» izeneko baso zabalean.

Arabian Arriagan, Gasteiz ondoko Lakoa zelaian.

Bizkaiko Enkarta-errietan Abellanedako arbolapean.

Durango aldean Gerediagako zugaizpean.

ARETXA TA ERRIA GAISORIK

Arbola guzti oneek ondatu dira; Gernikakoak bakarrik irauten dau, eta bera da, izan ere, izenik andiena mundu zabalean dauan aretxa.

Gaur Batzar-etxean gordeta dagoan arbola zaarra 15-garren gizaldikoa da, eta 1.892 garren urtean guztiz igartu zan

Baina galdu aurretik beste aretx gazte bat landatu eben, aurrekoaren semea, 1861-garren urtean.

Bigarren arbola onek lau urte ba daroaz ezkurrik emon barik, eta laster igartuko da.

Ez da arritzekoa.

Berrogei urte luze egon gara, bai arbola, ta bai euskaldunok arnasarik ezin arturik...

Baiña au alde batera utzi daigun...

ARETX BARRIA TA ERRI BARRIA

Beste arbola gazte mardul bat dago, sei urtekoa, bigarren zaar onen ordeztatzeko.

Aretx barri gazte au izan bedi, Bizkai eta Euskalbarri barri eta indartsu baten ezaugarri.

SUAREN DEIA

Baiña Gernikako Batzarrak zelan egiten ziran?

Antziñatean Batzar Nagusira deitzeko su andiak egin, eta adarrak jotzen ziran Bizkaiko bost mendietan: Gorbeia, Oitz, Sollube, Ganekogorta eta Kolitsa mendi tontorretan.

Suak ikustean erri bakoitxak, demokrazi bidez, ordezkari bi (diputado bi) aukeratzen zituen Gernikara joateko. Batzar-Nagusia eguna etorten zanean Bizkaiko Jauna Gernikako arexpean agertzen zan, ordezkari nagusi bi, eta beste idazkari bi ondoan zituela.

BATZARREAN

Gero, Gernikan boto-eskubidea eukien, errien izenak irakurtzen ziran, eta erri bakoitxaren izenak irakurri ala



erri aretako ordezkariak aurreratzen ziran, euren aukerapaperak eskuetan.

Erri guztiak igaro ondoren Batzarretxera joaten ziran Meza entzutera.

Mezatan abade batek ordezkariari esaten eutsen: bakoitxak bere onari bakarrik begiratu barik, Bizkai osoaren onerako lege zuzenak emon egiezala.

Gero Batzar Nagusia as ten zan.

ZABALAK

Batzarrak ateak zabalik egiten ziran, eta bizkaitar asko egoten zan entzuten eta hegira, zelako legeak emoten ziran.

Ordezkariak euskeraz naiz erderaz berba egiten eben, baiña legeak idatzi beti erderaz idazten ziran.

BAI, BAIÑA EZ

Bizkaiko Jaunak Bizkaitarren askatasunaren kontra, naiz Bizkaiko legeen aurka, beste legeen bat emon gura ba eban, Bizkaiko ordezkariak «Pase Foral» egiten eutsen, esanaz «legea egingo da, baiña ez da beteko», edo bardin dana «bai, baiña ez».

ALDUNDIA

Batzarrak udan egiten ziran, eta 10-12 egun irauten eben. Batzarra amaitzean, 12 gizon aukeratzen ziran, emon ziran legeak gero Bizkai guztian bete-azoteko. Amabi gizon oneik «Diputazioa» artu eben izena.

Gernikako azken BATZAR - NAGUSIA orain 101 urte egin zan. Noiz ikusiko dogu guk urrengo BATZAR - NAGUSIA?

ERRIKO ARAZOAK

Forua edo Foruak esan eta esan, aitatu eta aitatu egiten dogu. Txitean-pitean aitatu be. Azken urteotan zenbat aldiz? Batek badaki! Forua zer dan, baiña, euskaldunok jakin ba ete dakigu gero? Eun gizoneko (ala millako?) batek be ezetz egingo neuke.

Orra, bada. Forua zer dan jakin dagizun idazten dot lantxo au. Edo obeto eta zeatzago jakin dagizun.

Gaur azaleko xeetasunak batez be ekarriko dautsudaz. Sakonera edo mamiñera jo baga. Xeetasunok be jakingarri izan oi dira-ta.

ERRI-ESKUBIDEAK

Forua berez erri-eskubideak dira. Bizkaia'k zituan eskubideak. Era guztitako eskubideak.

Eta erri-eskubideok, legetzat ezarrita gero, liburu baten bilduta dagoz. Eta liburu oni be Forua esan dakioko. Esan be, onelantxe esaten jako.

Orixe dozu, beraz, Bizkai'ko Forua: erri-eskubideak, edo zeatzago esanda, erri-eskubideok lege egin da dakazan liburua.

Lege-bilduma, beste berba batez. Legeak eta legeak, Bizkai'ko erri-bizitzari dagokiozan guztitariko legeak, berreun eta irurogeitazortzi lege.

Legeok ogeitamasei ataletan datoz bananduta. Batzuk laburrak dira. Beste batzuk luze xamarrek edo luzeak. Oso luzeak diranak be badira.

LEGEOK NONDIK DATOZAN

Legeok nok emonak izan ziran itandu lei norbaitek. Iñok be ez, erantzungo neuskio nik.

Ez, legeok ez dira iñok emonak, errian bertan sorturikoak baiño. Berez-berez sorturikoak. Erriko usario eta oiturak lege eginda. orixe.

Lege-indarra izan aurretik oituraz eta usarioz urtetan eta urtetan gorde izan ziran-eta. Eta gero oiturok legetzat ezarri. Besterik ez.

Legeok ez ziran, beraz, bestek goitik beera ezarriak izan. Ez Bizkai'ko Kargudunek, ez Bizkai'ko Jaunek, ez Erregek, ez iñok.

Erriaren erraiñetan, beraren guna-gunean izan eben sorrera. Beetik gora etorri jakuzan.

Lege-indarra lortzeraiño etorri be, erriak berak bere Ordezkarien bitartez Batzarre Nagusietan legetzat ezarri zituan-eta. Ondoren agintariak onartu. Bizkai'ko Jaunak berak be bai. Erregek berak be bai.

Orra erria bere buruaren jabe ta agintari. Orixe egiazko demokrazia.

FORU ZAARRA ETA BARRIA

Azkenengoz Bizkaia'k izan eban Forua edo lege-bilduma 1526-garrenean idatzi zan.

Eta bilduma orri Foru Barria deritxo. Ez barria dalako —laureun eta berrogeitamabi urte dira idatzi zala-ta— leenago beste Foru edo bilduma bat izan zalako baiño, au da, 1452-garrenean idatziriko Forua eta Zaarra eritxona.

Forua izan, baiña, idatzi aurretik edo legeak izkribuz ezarri aurretik be bazan.

Urteak eta urteak leenago erriko usario eta oiturretan agertzen zan.

Zenbat urtetan? Nok jakin? Eundaka eta millaka urtetan, bearbada.


Foru izenak esan be aspaldiko oiturea esan gura dau.

BIZKAI'K

FORU BARRIA ZEGAITIK EGIN EBEN

Foru Barria egiteko erabagia zegaitik artu ete eben? Ori Foru-liburuak berak diñosku lege-bildumaren aurrean dakarren sarrera luze aretan.

Ona:



Foru-barrizatzea, Batzarrak agindua

«Bizkai'ko Jaurerriko Forua antxiña idatzia izan zala, ez bakerik, ez zuzenbiderik, ez Letrau ugaririk ez zan aldian; orregaitik gaur bear ez dan ainbat gauza idatzi zala Foruan, eta beste batzuk, denporak aldatu egin diranez eta ikusien gaiñera dakigunez, alperreko egin dirala; beste gauza batzuk, oster, erriaren bakebide ta nasaibiderako bearrezko diranak eta usarioz eta oituraz egin diranak ezarri baga dagozala Foruan. Ori dala-ta, alperreko eta bearrezko ez dana kendu eta oituraz eta usarioz egin eta ezarri barik dagoana erantsi eta idatzi egin bear dala...».

Foru Zaarra «antxiña» idatzi zala diño. Antxiña? Irurogeitamalau urte baiño ez. Ez zan, beraz, orren zaarra.

Baiña bitarte orretan aldakuntza aundiak izan ziran, antza. Eta lege batzuk alperreko egin.

O FORUA

Erdi Aroaren amaieran gagoz, egon be. Kondairaren aldi barri bat jaiotzen daukagu.

Eta aro barri au etorri dakigunean, erri-erakunde barriak sortuko dira Bizkaia'n. Aldakuntza sakonak eta gorabeera aundikoak gaiñeran datoz.



to Andra Mari eleizan egiña izan zan

Edo aurki etorriko diralakoaren susmoak dagoz. Orregaitik Foru Barri baten bearra, garai aretako bizkaitarren eretziz.

BATZORDE BAT IZENDATU

Milla bosteun eta ogeitaseigarreneko apirillaren bosgarrenean Batzarre Nagusi bat egin zan Gernika'ko Zugazpean.

Batzarre aretan Foruaren barrizatze-lana egiteko Batzorde bat izendatu eben, amabi gizonaz osoturiko Batzordea.

«Gizon eskolatu, jakitun eta barru garbikoak eta Bizkaia'ko Foru, usuario, oitura eta erri-eskubideetan aituak ziranak izendatu bear zirala» eragabi eben.

Eta batzartuta egozan errietako eta elizateetako Aldun guztien izenean aalmen oso-osoa emon outsoen Batzorde oni, zin eginda gero, Forugintza burutu egian.

Eta ogei egunean egin egiala. Ogei egun baiño ez langintza orretarako.

Gaur be orrelango lan astun eta garrantzitsu baterako epe laburregia izango litzateke. Eta orduan ez? Bada, alan be, arrigarriagorik.

Batzordeak ez zituan ogei egunok bear izan bere egitekoa amaitzeko. Bilbo'ko uri ondo-ondoan egoan Naja'ko Martin Saez'en etxean batu ziran eta amar egun igaro orduko barriztapena egiñik euken.

Goizean seiretan asten ziran lanean eta amarrak arte jardun. Arratsaldean ordubetetatik bostak arte barriro be ekin eta ekin.

FORU-LIBURUA ERATU TA IDATZI

Foru Zaarretik zer kendu eta Barrian zer erantsi bear zan zeaztu ebenean, Batzordeak gizon bi izandatu zituan Foru-liburu barria eratu ta idazteko: Jaureriko Letrau zan Martin Perez Batxillerra eta Jaurreri bereko Sindiku zan Ibarguen'go Iñigo Urtiz.

Eta agindu zorrotz au emon eutseen: Gernika'n Antxiñako Santa Maria gure Andera eritxan elizan alkartu eitezala eta eliza aren barruan eurek barriztau zituen lege zaar eta barriez liburu barri bat egin egiala, legeok atalka banandurik eta lege baktxaren adiera idazkera on eta argiz garbi azaldurik.

Eta langintza au amaitu arte beste ezetarik egin-kizunik ez egiala euren gain artu.

Eta oraintxe dator arrigarriena.

Gizon bioi 1526-garreneko abuztuaren ogeigarrenean leporatu eutsen Batzordeak egiteko ori. Eta abuztu orren ogeitabatgarrenean ekitaldi ori amaturik euken.

Foruaren eratzea eta idaztea ogeitalau orduan egin eben, beraz.

Bilbo'tik Gernika'ra joan (oiñez?, zaldiz?), an liburu barria idatzi (berreun eta irurogeitazortzi lege!) eta barriro Bilbo'ra biurtu. Dana ogeitalau orduan! Eta laguntzaille barik eta idazkailu barik. Sinistuteko be!!

FORUA BAEZTU

Foru zarra lau Erregek baieztu eben:

- 1452-garren urtean Endrike IV-ak.
- 1473-garrenean Isabel'ek (artean Erregin-gai zala).
- 1476-garrenean Fernando «Katolikuak».
- 1512-garrenean Doña Joana'k.

Foru Barria, ostera, 1527-garren urtean Carlos Erregeak baieztu eban.

- 1575-garrenean Felipe II-ak.
- 1602-garrenean Felipe III-ak.
- 1621-garrenean Felipe IV-ak.
- 1667 eta 1681-garrenean Carlos II-ak.
- 1702-garrenean Felipe V-ak.

- 1751-garrenean Fernando VI-ak.
- 1760-garrenean Carlos III-ak.
- 1789-garrenean Carlos IV-ak.
- 1814-garrenean Fernando VII-ak.

Foru onek oso-osorik iraun eban 1839-ko Legea emon arte, eta erri-arazoei egokionez, 1959-ko gara-garrillaren 30-rarte.

BERNARDO MARIA GARRO, «OTXOLUA», EUSKAL IDAZLE JATOR (1891 - 1960)

MUNDAKA ATSEGINGARRI

Ona eta egoki da noznai, eta zuzentasunak eskatzen daukuna, geure artean jaiio, azi ta kulturaz jantzi ostein, gizaseme ospetsu egin diranak txalotu ta gorestea.

Barrero esan: on, egoki ta eder.


Mundaka ez yaku olako gizonetan exkasa ta urria izan. Itxas-ertzean zoragarrero etzuna daukagu uri galant au; nainundik begiratura, ba-dau itxaso naiz mendi zer lillura-garririk. Or aurrez-aurre ta ingurumari, Ogoño, Laga, Izaro, Laida, Txatxarramendi, Bermeo..., lenago, ta gaur batez be, guztiz aomen andikoak.

Zenbat mariñel eta itxas-gizon sortu dituan Mundaka'k! Azkue'k goi-goi jarten dauku bazter atsegingarri au, bere ama be —Karmen Aberasturi, euskal lanetan ainbat lagundu eutsona—, antxe jaiioa zalako.

Mundakarra dogu B. M. Garro, «Otxolua» be.

MUNDAKA'N JAIIO TA IKASI

Ezin daikegu uka gizaseme ospetsu batek, bere bizitzal dian zear, zer burutu dauan jakitea eder yakunik: nun jaiio, egindako arat-onatak eta joan-etorriak, idatzitako liburuak, eta abar, jakin nai izaten doguz.



«Mundaka, mariñel eta itxas-gizon askosen ama otxoluaeren jaioterrria»

Geuk be, bear bada, olakoaren antzeko zerbaite egin naita. Garro, euskal idazle txukuna, Mundaka'n jaiio zan, 1891-8-22'an.

Famili on baten sukaldean azi ta koskondu zan.

Eskolara asi zanean, laster erakutsi eban etzala buru motelekoa. Bizkor ta zoli ebillen lenengo asi-masiak ikasten.

Eskola garaian agertu oi yaku, geienaz, gerora zer izango garean be. Ortarako edo artarako dei berezia somatu oi dogu geure kautan.

Garro'ri, umetatik, izkuntzak egiten eutsoen kili-kili, izkuntzak yakozan atsegin.

Eta ikasi be, aurrenik euskeraz ta erderaz, ta gero ingeles, portugalderez ta abar, ikasi zituan.

ZARREN ESANAK

Mundaka'n —gaur be bai— etxean naiz kalean euskeraz ta erderaz mintzatzen ziran; beraz, elebitsuak genduzan.

Gure txiki zoliak, izkuntzak ikasi ezezirik, beste zerbaite egin eban, zera: kale-ertzean egon ta itxas-egalean apatx jarrita mormoxean ziarduen andra ta gizontxoengandik ainbat gauza eder jaso zituan, ipuiñak, esaerak, itz zuurrak, arein ezpanetatik eurak konturatu barik urtenak.

Ori, geroago egin ebazan itzulpenetatik agiri yaku.

Urteak joan urteak etorri, bai euskeraz eta bai erderaz, ederto mintzatzen zan; baita idatzi ta bere pentsamentuak adierazo be.

BILBO'N IKASLE

Erriko eskola-ikasketak amaitu ebazanean, komertzio-karrera osotu euskun Bilbao'ko «Escuela de Comercio»-n. Onetan be abagune aukerakoa eskuratu yakon barne-deiari erantzun al izateko.

Bilbao'n ikasle zala, adiskide-lokarriz, etxean alkartu zan Elorrio'ko, Arrasate'ko ta beste gipuzkoar gazteakin.

Orrez gainera, elizti (gramatika) batzuk begiztatu ta euskal nobela batzuk irakurri ebazan; eleiz-liburuak be, Añibarro'ren «Esku-Liburu» adibidez, eder yakola berberak diñosku.

Asteroko, izparringi, bertso-paper eta olakoak, barriz, aspertu bage iruntsi oi zituan.

Orrela euskeraren zirkinzulo guztiakin jabetu zan gazetatik.

ARGENTINA'RA TA ONA

Emeretzi urteko zala, 1910'an, Argentina'ra jo eban; baiña, an zazpi urte egin ondoren, barrero euskalerriratu yakun, «euskaldun internazionala» eginda, berak diñoskunez.

Euskalerra osoko euskaldunakaz artu-emona izan eban an, eta edozein dialektu mintzatzeko gai zala biurtu yakun andik.

1917'garrentik, beraz, Mundaka'n daukagu. Berton ezkondu zan. Eta ementxe batez be, ta Bilbao'n, bizi izan zan, 1960-9-14'an il arte guztian.

Bilbao'ko «Astoreka ta Azketa» etxean lan egin eban, ordezkari bezela.

Gizaseme zintzo, siñismen andikoa.

Ba-ebazan bere zaletasunak eta lerak, idazteko, musikarako, mendirako ta abar.

Txistua ta kitarra joten ekian.

Euskaltzaindikoa.

«EUKADI'N IDAZLE

Gizakume eskolatu geienak senti oi dabe idazteko miña, griña, lurpean dagon aziak erretetako legez nunbait.

«Otxolua» —au zan idatzietan geienik erabilli eban izen-ordea—, noiz asi etc yakun idazten?

Berez ala norbaitek zirikatua?

Garro'k berak dirauskunez, Kirikiño'k emon eutsan aukera.

Onek zuzentzen eban «Euzkadi» eguneroko *Euzkel-Atala*, noiztik noizera bertso ta esaldi-batzaldiak eratuaz.

Olako baten 1924'ranta, Garro'k be eskua artu euskun, konkurtsora esaldi biurri pilloa bialdurik.

Ez eban saririk eskuratu; bai, oraitiño, aipamena.

Gerorakoan, bere bizitza guztia kontixu, Mundaka inguruko albistak bialdu oi ebazan, ia astero, Euzkadi'ra.

Izparringi onetan argitaratuak ditu bere lanik geienak.

Erri-izparrak beti etozen ipuin, jazoriko edo edestitxalaten batekin, bertsoz naiz itz lauz, amai bezela txukun jantzita.

BERE LANAK

Ona «Euzkadi»-n azaldu zituan euskal lan batzuk: *Pizti patariak* (1934), *Kurutze eginda dagon lekuan* (1935), *Abere dontsuak* (1936), *Euskalerriko abere piztiak*, *Abere Ipuñak*, *kontukontari esanak*, *Lapurditar J. Barbier'en «Ixtorio-Mixterio»*, eta abar.

«Euzkerea»-n emon ebazan batzuk: *Voronoff'ek be ezin duana* (1929), *Bijar Doniane'ra* (1929), *Ortuzar' tar Errobusten jauparija* (1929), *Nai dogune* (1930), ta abar.

Azken urteotan euskal abizenak eta toki-izenak, gure baserrietakoak batez be, batzen ebillen. «Euskera»-n dator olako lan bat «*Nombres genéricos de «rio» en la Toponimia vasca*» (1956), izenburuz.

BERTOLDO EUSKERAZ

Garro'ren lanik ederrena, alan be, beste au da: *Bertoldo'ren maltzurkeri zurrak eta Bertoldin'en txaldankeri barre-garrijak* (Bilbao, 1932).

Della Croce italiar poeta ospetsuak italiara, idatzitako *Bertoldo e Bertoldino* euskeraz.

Amazazpigarren gizaldiko idazti barre-eragillea, egillea ilda gero argitara emona ta Europa osoan zarata itzala atera ebana.

Itzulpen au zala-ta edo, Orixe'k onan idatzi eban: «Lagun eta irakasle dut Otxolua... Euskalerra guztiko idazleen artean txukunenetariko».

Ba-dau beste lan bat, oindiño argitaratu bakoa: *Lau Ebanjelioak*, Goma kardenalak egiñiko «Evangelios concordados» bizkaieraz. Eta kanta letrak eta olerkiak.

ABERE DONTSUAK

Poeta urtena etzan arren, atsegin aundiz idatzi ta irakurten zituan olerkiak.

Bere lanen artean naikoa datoz «Euzkadi» egunerokoan, jatorrak (orijinalak) eta ingelesetik berak euskerara bihurtuak, «Aberre Dontsuak» deritxon lanean batez be.

Bein, 1954'an, onela ziraustan kartaz: «Len aitatu dau-tzudan «Aberre Dontsuak» itzulpenaz, ingeles olerki asko be ba jolaz euskeraz ipinita; pozik irakurriko neukez gaur be, euretatik batzuk, bada ez dot uste txarto egozanik».

ABESTI-ITZAK

Ondoren diñoanez, sarri samar ondu ebazan «bertsoak», edo obeto, orduan modan ebiltzan kanta ta abestiai jarteko letrak, arin eta gozoak.

Oneik askatasun geiagoz egiten ei dira, leiaketarako ta zabalkunderako izan oi dira-ta. «Jentea ez bait dago gauza obarik egiteko», autortzen dausku.

Au da, edozelan egiteak doguz, antza, taiu ortako bertsoak. Eta ez leuke olan izan bear. Ba-dira letra eder-ederrak gure kantutegietan, Sallaberi, Azkue, Aita Donosti, A. Rietzu ta olakoen liburuetatik dakusgunez.

GAUR GANORA BAKOAK

Baiña ba-dira, ta ez gitxi, gaur-egunetan batez be, eze-tariko ganora barik egiñak be.

Olako bertsoegileak egundo ortan asi ez ba'lira, obeto. Au erremindu samar diñot, gaur irakurri ta entzun oi doguzan ainbat letra iguingarri yakuzalako: musika bikaiña ta letra arlotea, ez neurri, ez puntu, ez bertso, susterrik bakoa.

Olerkiak bere legeak ditu, zentzunezkoa ba'da beintzat.

ERDEL ABESTIAI

Garai aretan, bere errian be bai, erderaz abesten ziran kantuentzat, euskal letrea nai eban Garro'k.

Ainbat daukaz olan egiñak.

Au, esaterako, «Eras como la rosa de Alejandria, colorada de noche, blanca de dia...» musikarentzat ondua da. Ona estrofa bi:

<i>Neure ondortutik nora zoaz, biotza? Eman beroa dozu, Kanpoan otza, maitea, polita, kanpoan otza.</i>	<i>Ez da zeran izar politagorik zure begiak baño, jaunak emonik, mailea, polita jaunak emonik.</i>
---	--

BALTSEOARI EUSKAL ITZAK

Otxolua garerdiko zala batez be, dantza ta musika, aukerakoa zan vals (*waltzer* doitxeraz, *baltseo* euskeraz) dantza lotua.

Era ortako musikeari be euskal letra jarri nairik, egin euskuzan banaka batzuk.

Nire «Milla euskal Olerki eder» liburuan dozuz batzuk, «Bidaztiak udan gerizea» asten dana, ta abar.

GAUTXOEN NEGARRAK

Argentina'n aurkitzen zala asi zan, bear bada, bertsoak neurtzen; an ikusitako gautxoak zelan negar egin oi eben, «Gautxo baten Erostat» deritxon olerkian azaltzen dau; ona lenengo aapaldi edo estrol'a:

*«Ba-neban nik izan
ba-neban
zaldi bat
txikar-orizkea,
zaala to mizkea».*

Geroago be burutu zitun olakoak. Ona bat:

<i>«San Pedro-k abeliña goiz baten emon zeunstana, neure penatxu guztien testigu bakarra dana, atzera dotsut bialtzen izan daizun nire barrik: urrun zугandi egon arren, zaukodazala aitzu barik.</i>	<i>Kabelifia, kabelina, kabeliña biotzekoa, nire maitetuagana, nire maiteagana oa. Esaiona, esaiona, esaiona itxaroteko nire pentzutun ba yagona, etxakonala damutuko.</i>
---	--

*Kabeliña, kabeliña,
maiteak niri paparrean
pa-emonda imiña.*

GABON-KANTAK

Gabon-kanta ta Marijesak be eder zituan.

Bizkaia'n eurrez abestu oi dan eta Azkue zanaren Kantutegian datorren «Nazaretoko urian dago»-ri beste sei estrofa jarri eutsozan, guztiz amar egiñik.

Laugarrena, «Maria ta San Jose doaz» asten dana ta zazpigarrrena, «Orduan emon eban mundura», txukun-txukun osotuak daukazuz.

Era ontako kantak, Gabon-kantak, Gernikaldean batez be Marijesak deritxenak, naiz etxe barruan naiz kalez-kale oiukatzeko oitura zar-zarra zan Bermeo, Mundaka, Busturi, Gernika ta Muxika inguruetan.

EGUZKIA ITZI ILLARGIA ARTU

Gaur, zori txarrez, onako beste ekandu askori lez, lurra emon dautsegu abesti kristau, samur atsegingarri onei.

Eta, jakiña, gizonak zerbait bear bere barruari, jai pozgarri oneitan atan be, asetasun egoki bat emoteko, ta Jainkoz bete nai ez danean, Olentzeroz bete bear.

Orregaz eguzkia itxi ta illargia artu dagigu.

Ba-da alderik!

Ekandu zaar eta mituak zirala esanez itxi genduzan utsuneak, zegaz bete daigeguz? Atanbor-otsez eta ardao-iundaz? Edo-ta zentzun bakoz?

Bide arloteak nunbait, gure Gabon, Urte Barri ta Erre-geen jaiari, eskatzen daben eta merezi daben betetasunaren betea emon al izateko. Ez al da olan?

KOPLALARI ONA

«Onako gauzak askotxo egin ditut —diñost Otxolua'k—.

Baiña erdizkako ondorena baiño ez dau onek izan.

Kitarra artu ta erririk erri ibilli al ba'nintz, bertso oneik abesten eta «Bertso Berriak» lez saltzen, arrotuko leukie bear bada arrakasta-giro piskat, baita txalo batzuk jaritsi be; ez gagoz, orraitioño, Iparragirre lez aruntz-onuntz ibil-teko».

Esanak esan, Garro ez zan izan iñundik be koplari exkasa.

Ederto erabilten gure izkuntza, euskera, ta olerkari naiz betsolari batek, zer biok, zeatz-meatz euki ta jakin bear dauz: buruz naiz entzutez nabarmendu nairik dabillenenak, idazle maillan bereziki, berezko doaia bear dau lenengo, ta darabilten izkuntza erroz jakin, ondoren.

Gaitasun biok barik, edozein idazlek naiz olei_karik, aizea inarosten diardu.

Otxolua itzulpenetan maixu dogu, ta olerkigintzan bitxilora.

IBILTARI, eta NAPARROAREN ETA ARABA ZARRAREN KANTARI (LATXAGA abade jauna)

AIZTUTA DAUKAGU

Ezta bera, erriz erri, gitarra zar edo barririk lagun dauala, kantari dabillenetakoa. Orain artean ezteusku bertsorik emon beintzat.

Baiña Naparroak eztau euskal-kantari oberik aurkitu.

Arriturik nago eta ezin dot sinistu ez ulertu idazle onen izenik ain gutxi entzutea.

Gaurko egunotan, euskerazko edozein uskeri, edozein txupatxu ustel edo marizikinkerri aogozagarririk *onene takotzat* eta gure literaturaren aberasgarri anditzat eskintzen dauskuenean, ezin dot ulertu zelan daukagun ain ixilpean Latxaga jaunaren izena, zergaitik entzuten dan beronek idatzitako liburuen aitamenik ain gitxi.

ZORDUN GARA

Euskalerrri guztia dago idazle onegaz zorretan.

Baiña zordunen Naparroa dala esan bearko dogu.

Orañarteko liburuetan Euskalerrria, Euskalerrri osoa, dau gogoan, baiña Naparroa, guztien gainetik.

Atera dituen liburuen izenak naiko argi diño: «*Naparroa, euskal-arrobia*», «*Aralar-ko San Migel*», «*Jaka-ra ofiez Naparroan zear*», «*Errioxa-ko San Millan, Euskal-iturri*». Naparroa euskalduntzat dauken euskaldunak, liburuok irakurriaz, or dauke euskal-erreño zar orren euskalduntasunean bete-betean murgiltzeko erea.

Eta dana euskera bizi, errez eta giartsuan esanik.

Latxagak barruan daroan sua ta bizia ezarten badaki idazten dauan guztiari.

IBILTARI ETA IDAZLE

Idazle asko izan dira ibiltari. Bizi-bearrak edo lur barriak eta erri barriak ezagutu-gureak ipiñi ditu bidean.

Eta ibillian ibillian ikusia liburutan esaten eta adierazoten. jakin dabe.

Euskalerrria be etorri izan da iñoz kanpoko idazle ibiltaririk, eta gure errien eta erritarren barri emon nai izan dauskue: gure mendi ta ibarretako ikusgarriak, sure erritarren izakera oiturak jaso eta lumaz zabaltzen alegindu dira.

EUSKALDUNAK BE BAI

Bear bada, euskaldun idazleak izan dabe orretan arduratik gitxien. Baiña arlo orretan sartu danik be izan dogu.

Olakoen arteko egin geinke, esaterako, Iztueta zarra, joan dan gizaldikoa.

Gizaldi onetan, barriz, or dogu Bidasoaz andi Etxepare, osagillea eta euskal-odazlea.

Asmau-barria zan orduantxe automobilla, beribilla eta beribillez dabil bera Euskalerrria obeto ezagutzen eta *Beri* liburua idatzi euskun, berak ikusitako erri ta bazterren barri emonez.

LATXAGA BIDAIZTI ETA IDAZLE

Bide onetan Latxaga gure artean beste iñor baiño aurrerago joan jakula esanaz eztoгу alan eztanik esango.

Euskalerrria arakatuten, gure errietako bideak austen gitxi langoa dogu bera.

Gero, ikusiaren barri besteai adierazoten orañarteko guztietan zeatzena, zabalena eta jarraituena.

Orretan benetan txapeldun da eta txapeldun jarraituko dau luzaroan, nik uste.

Nekez agertuko da gure artean idazlerik, «*Naparroa euskal-arrobia*», eta «*Jaka-ra ofiez Naparroan zear*» liburu biak baiño mardulagorik, argibidetsuagorik, biotzetikoagorik egingo dauskunik.

GIZALDIAK ZEAR IBILTARI

Baiña Latxagak eztau gure begietaratu nai izan gaurko Naparroa utsa, gaurko napar-lurra.

Lur au baterik bestera igaro dau, ango aixe garbiak artzen, ango ederrez begiak betetan, ango gizonak eza-gutzen, amonatoakaz izketan, euren euskera zarra entzuten, ikastolan lan pozgarriakaz poztuten, eta ango euskal-aztarrenak billatzen.

Orixe, euskal-aztarrenak be billatu nai izan ditu.

Orregaitik gaur ikusiak lenera daroa askotan eta oraingo Naparroa eta antxiñakoa batera emoten dauskuz.

Or daukagu, dana batean, erri bakotzak zer dauan gaur jakingarri, baiña baita nor edo nortzuk izan dituen gogoangarri eta ospetsu joandako gizaldietan.

ARABA ZARRAREN KANTARI

Kantari edo kontari, Arabaraiño be eldu da Latxaga jauna antxiñako lorratz eta aztarrenen billa, argi egiten.

Araba zarreko bazterretan egundoko aztarketak egin ditu eta liburu baten eskiñi dautsez jakintunai eta jakin-gurakoai.

Liburu dotorea azalez be, eta euskeraz egiña geiena, baiña frantsesez eta Espanako erderaz laburtuta, munduan zabalduago egin daiten gure erriaren argia eta egia, izena eta izana.

BASELEIZA ZARRAK

«*Arkaitzetako Bisigotika Baselizak Araban*» da liburua. Europa guztian ez ei da aurkitzen olango eleizaTik Araban baiño geiago.

Atx-zuloetan egindako eleizarik geien Araban. Bisi-dodoen aldikoak ei dira, eta kristiñautasuna Euskalerrrian noz sartu zan aterateko argibide barriak emoten ei dauskuez.

Ain zuzen egunotan agertu da beste liburu bat, gauza bera diñoskuna, Lekuona zarraren itzaldi baten erderaz.

Latxagak euskeraz emon dausku dana. Euskerazko liburu bat, frantzera gaz batera, gure erriaren ezaupidea munduan zear zabaltzeko izango dana.

ZORDUN, BAI

Barriro esan bear dot: arriturik nago idazle onen aitamenik gure inguruan ain gitxi entzuteaz.

Ain ixilik eta apalik Euskalerrriaren alde diarduen onegaz zordun gara.

Zordun Euskalerrri osoa; zordunago, Naparroa.

UMEEN NOTAK: ERRUDUN-BILLA

IREKASLEEN ETA IKASTETXEAREN ERRUZ

Sikologoaganako ikustaldi ostean, ulertu gura ez genduna ulertzen asten gara, edo asi bearra dogu.

Leen geure semea atzeratua zanik ez gendun entzun be egin gura.

Orain ba dakigu geure adiskide arteko batzarretan zer erantzun: «Sikologoak arrazoia emon daust. Nire umea naiko argia da».

Baiña irekasleagaz (edo ikastetxean) gorabera batzuk ditu (edo izan ebazan) eta orain ondorio berezi batzuk jasatzen ditu.

Eurak dirala eta dago etzeratuta, ostantzean daan baiña argiago litzake».

AURTEN ARTE, PROBLEMARIK EZ

Ume baten azkuntzan, aldakuntza aundiak eta era guztietakoak izaten dira.

Sarritan au ez dogu kontuan artzen, eta problema bako edo umeak nota obeak ebazan urteak gogoratzen asten gara.

Ez dogu geiago sakontzen, eta umearen egoera ontzat artu naiean, onelakoak esaten ditugu: «Aurten arte ez dau inoiz problemarik izan», «ze ona zan onen urtetako andereñoa edo irekaslea», «argia da, sikologoak esan daust, baiña gorrotoa dautse irekasleak, eta, beraz, ezin dau nota onik atera», eta abar, eta abar...

GAURKO IREKASKINTZA EZ DA BAT BE ONA

Ba dira geiegi aztertzen dabenak be.

Oneintzat gurasoak, irekasleak eta umeak, danok gara errugabeak.

gatx guztiaren susterra irekaskintzan bertan datza.

Beraz onein eritxiz, nota txar orreik obetutzeko, ezer gitxi egin dagikegu.

AUSARTAK

Beste oneik egiten daben dana umeen onerako egiten dabe, edo beintzat, orrela uste dabe.

Pentsaera onetan oiñarrituta, gaurko gizartean onartzen daan «entxufe» jokabidea artzen dabe.

Onetarako danok ezagutzen doguzan erak erabiltzen dabez.

AUSARTAGOAK

Beste batzuk oraindik ausartagoak dira.

Ez dira asko, ez.

Banaka batzuk baiña ez dira.

Baiña ori bai: oso ausartak.

Onei ez dautse, antza, teutik be ardura umearen ikasketak, ez eziketak.

Eredutzat, ia siñestu eziñeko bat aitatuko dot.

Onela mintzatu jatan: «Zuri... «I» (insuficiente) edo «S» (Suficiente) ipiñi bardin jatzu. Ipiñi egiozu, mesedez, «S» bat».

NEBA-ARREBEN ARTEKO GORABERAK DIRALA ETA

Beste oneik burutsuagoak dira, eta euren arrazoiak dabez. Urte ezbardifietan dabez seme-alabak.

Zarrenak urte bat atzeratu eta besteagaz alkartzean, batzutan zarrenak problema bereziak izan dagikez, eta orduan kontuan artzekoa izaten da.

Beraz, irekasleekaz onetaz artuemonak izatea zuzena da.

EZ DAKIT ZER EGIN EUREKAZ

Ez dira gitxi au esaten dabenak be.

Batzurentzat euren semeak zuzendu eta menperatu eziñak dira; besteentzat, problemarik aundiena semeak barik, onein liburuak dira.

Bai batzuek eta bai besteak, zer egin ezean eta eurak ezin dabena irekasleak egingo dabelakoan geratzen dira.

NEUK NM DITUDAN IKASKETAK EGINGO DITU

E. G. B. edo B. U. P. amaitzean gorabera berezi bat sortzen jake gurasoei eta ikasleei: ikasten jarraitu ala lanean asi? Itz baten: zein ogibide artu?

Ordu au eltzen danerako, gurasoak zerbait asmatu edo erabagita eukitzen dabe.

Semeak be euren ametsak izaten dabez.

Biderik egokiena artzea ez da bat be erreza izaten: sarritan semeak bide bat nai dabe, eta gurasoak ezin, euren irebaziak ez dira ainbesterako eta, edo beste antzerako goraberaren bat.

Egoera onetan sarritan gurasoen eritxia nagusi urtetzen da.

Semeak, alderantziz, batzutan ez dabe gurasoen erabagia ontzat artzen. Burugogorkeri onetan ikasteari izten dautsoe eta «suspense» ugari izaten dabe.

AMETSEZKO ERABAGIAK

Beste batzutan, gurasoak eta semeak, erabagi bardiña artzen dabe.

Baiña erabagi ori semearen almenean edo gaitasunean oiñarritu barik aurkitzen da.

Gurariz asko (eta nork ez!), baiña ezin bada, zertarako bide ori artu?

Azterketa zeatz-zeatza ez da irakurtzen dozun au.

Oneik eta antzerako beste jokabide asko aitatu daitekez.

Ba dira aitatu bearreko beste batzuk be, guraso eta irekasle askorentzat eredugarriak dira eta.

Baiña gaurkoz utsdunak bakarrik aitatu doguz.

Guraso eredu onein jokabideak urrango batean aitatu doguz.

Eta irekasleaz eta irekaskintzaz beraz ezer ez dauskuzu «sango»?

Bai, orreitaz ba zerbait esateko asmoa ba dot.

Baiña apurka-apurka.

Eta ez orreitaz bakarrik; irakurlen batek gaien bat nai baleu be, eskatzen daustanaz idazteko prest nengoke.

ELANTXOBETARREN GAITZA

ELANTXOBE!

Aldatz eta pendiz, mendi eta ur. Etxeak, mendi gibelean, dindilizka lez. Zimenduak, erpaka lez lotuta, amarratza arriari eusten dan antzera. Barrizalekeriak nortasun eta itxura galdu dautsa erri onen dotoretasun jatorrari. Etxe egilteen pekatua.

Euskal Finisterre deitzen dautse, bidea bertan amaitzen dalako.

Andre garbi ta lerdenen erri.

Ez jakin zeiniek asmatu eban esaera: Elantxobe, milla probe.


Ori, bizi moduaren neurri, ez da inoren lotsagarri. Zein arrantzale-erri ez da bizi garratz eta estuan igarri?

Bilbo'ko Kontzesiñoiko monjak lagun on izan zituen XVII garren gizaldian, porturako diru aurreratzalle lez.

Pobre deitzeak ez zitun minduko elantxobetarrak. Bai geroago auzo errien batek geitutakoak: milla probe ta beste ainbeste sorgin sare.

İño! Noiz ezagutu dira sorgiñak Elantxoben? Lamiñak bai. Lamiñak ba euken euren koba edo leiza Ogoño'n.

Bein, ango lamiña bat erriko etxe baten billatu eben, lepoa berotu ta atara be bai andik. Eta lamiña ori, inñori errua emoten ausartuten ez zalako, berak bere buruari min emon eutsala agertzen ibili ei zan, lamiñean berbetan: Niri miri nau.



Elantxobe: Aldatz eta pendiz, mendi eta ur

IBARRANGELU'TIK AZKATUTEN

Kai polita. 1.784 urtean sarratu zan lenengoz. 33.000 dukat kostatu ei zan sasoi aretan.

Dukat bakoitzak amar errial euskazala kontuan euki ta ortik atara zenbat orduko milla erria].

Portuak indar artzean, parroki barria egiten asi ziran 1.799 urtean. Iru urtetan amaitu.

Orrela Ibarrangelu'tik zearo aldebanatzea nai ebenak euren guraria lortzen asi ziran.

Ordurarte, Ibarrangelu'ren auzo txiki lez ezaguntez zan itxasertz au.

Ain zuzen ango baserritarrak ziran lenengo bertako arrantzaleak.

UMORE TA KANTAK

Itxasoari begira beti, Ogoño'ren kerizpean.

Arrain kala ezagunak ingurutan.

Liburu askotan agertzen dira emengo «tipiku» lez txan-gurru eta txabiak.

Gaur, itxas ontzietako gizon ugari elantxobetar dira.

Kresala. Berezko gatza.

Ba dauke emen Urtebarrirako kanta jator bat: Atsoak dauko illeta sarri; agureak dauko ardua pozgarri.

Illeta nai adarra joteko, ezaguna da emengo nortasuna. Eztena, ziria beti mingain puntan. Akatsa nun billatuko.

ABOITIZ ABADEA

J. Antonio Aboitiz lekeitiar abadea zan. Ez atzo goizekoa. 1.824'n illa. Kanta alai, zirikalari ta irritsu askoren egillea. Lagun arteko. Bereak dira bertso oneik:

*Gutziz zabala dot sabela,
bardin bardin dot gibela,
este bakotxak kabiuko leuke
gambela bete okela.*

Abade zintzoa izan eta... «ez eiguzu tentazioan jausten» egunero eskatu baiño naiago ei eban zitzaldien bidea uxatu edo kendu. Origaitik bere serbitzarizat neskaraz itxusi bat ei eukan, tximiño antzeko.

Len, gaur baiño gitxiago ibiltzen giñan denporetan, errietako zulo ta basterrak ezeze, leio ta tellatuetako goraberak be ikusi nai izaten ziran. Itxas errietako andrak, erri batetik bestera joatean, ez ziran mutu gelditzen aitzakiak agertzeko.

MOTZARI BARREKA

Bein, elantxobetarrak Lekeitio'ra joan eta Aboitiz abadearen serbitzari a ikustean, barre algaraka eta ixekaka ibili ei ziran. Ortaz, minduta, Aboitiz abadea leiora urten eta abestu eutsen zitalki:

*Elantxobeko also illetariak
gabian gau-ontzak,
kantari motzak,
egunez barriz ugazixoak...*

Azkenik entzuteko asti barik abadea bera gortuta laga, ei eben zozkon oneko emakume areik. Ziriak mallua billatu; baiña malluari kirtena eten nunbait.


LEKEITIO ETA ELANTXOBE

Zenbat orrelako kontu! Alaz eta Lekeitio eta Elantxobe, beti adiskide.

Ogoño eta Otoio lez, beti alkarri begira, nai ta bitartean, Zentellarri, Arritxu, Ogella, Apikal, Aizketatxu, Lapatza eta abar egunero itxas bits eta brastadak artzen gelditu.

Itxas-lurruna itxas-errien maite-kanten zurrurutuna ei da.

A. ZUBIKARAI



Erri-barruan, Eleizea dago

EUZKADI TA FEDEA

- **Zoro-Aroa ez ete da gaurkoa?**
- **Errundun baten billa euskaldunak.**
- **Gaztedia Eleizearen aurrez-aurre.**
- **Eleizea be, bere zintzoengan zigortuta.**
- **Sinismen sakondua, Euzkadi'ren bidea.**
- **Gizonak, Eleizan be, gizonkeriak.**
- **Paris'ko parlamentari batek esanak.**
- **Parlamentarien txaloak.**
- **Euzkadi'n Eleizea kendu ezker, zer?**
- **Biztu beite gazteengan fedearen txingarra.**

Aro onetan darabilguzan esan-bearrak eta entzun-bearrak zorabiotuta edo zentzuna bearrean darabil gaztedia ta gizadi osoa.

* *

Galtzeko arriskuan dagoana, kristau-zentzuna bera da. Batez be goiko Eleizea, berrogei urte oneitan, laterri agintariai geiegi lotuta egon dala ta, arrikada guztiak Eleizearen aurka dira.

* * *

Kalte guztien errundun Eleizea ei da. Gizonak, tamelez, artaldearen antz ikaragarria dauke: nortasun gitxi geienak, baita eleiz jakituri gitxi, ta errezez, edozeiñek diñoanari jarraituaz, pozik doaz, artaldea lez, beste larreetara.

* * *

Urteotan Eleizeari arrika egitea oitura aundia dalarik, bai gizon batzuk, ta geiago gazteak, baita amalau urtetik ogeira arteko gaztetxoak be, kristau-zentzuna alde batera itxirik, pozik bizi dirala esa leike, lau edo bost «slogan» esakera baltz itsu-itsurik onartuaz.

* *

Bat-batean, kristau-sinismen eta moral ezaeztu dabe. Euroi, egia non dagon adierazi bearrean gagoz sinistedun guztiok.

* *

Lenengo ta bein, guzti orreik jakin bear dabe Euskalerrian eleiz-gizon asko ta asko erri-agintariakaz batera ez diralako egon, zigortuak, baztertuak, eta uxatuak izan dirala. Eundakak eta geiago izan dira orrelan erabiliak.

Esakun arin-ariñai itsuan jarraitu barik, egia non dagon ausnartu bear dabe.

* * *

Ondo ausnartu ezker, Kristo'ren sinismena ta morala baiño gauza oberik ez dago gizadiarentzat.

Ortik zear esaten diran guzur edo erdi-cgiai jarraitzea baiño onurakorragoa da benetako Kristo'ren Eleizan dagoan sinismena ta morala sakondu, ikasi ta ausnartzea.

* * *

Eleiztarren txarto egiñak, eta utsuneak, ez Eleizearen gaiñera bota. Gizonakaz atonduten da Eleizea eta gizonak dagozan le kuan gizonkeriak izaten dira.

Gizonkeri txarrok egin arren be, Eleizeak, gauza ederrak etagoragarriak egin ditu mendez mende.

* * *

Egun baten an Paris'ko parlamentuan, gotzain eta diputadu autestu zan batek, Eleiza katolikua dala ta ez dala, sekulako itzaldi luze ta bizia egin eban.

Auxe zan itzaldiaren laburpena:

«Emen zagozen jaun-andreok beti Eleizearen aurka itz egiten dozue, baiña esan egidazue: Egun baten gizaditik eta, jakiña, Prantzia'tik, Eleizeak aide egingo ba'leu, emen egin dituan ondasun ta onura guztiak beragaz «eroanez, zer geldituko litzake emen?»

«Eztabaida barik, emen geratuko litzakez ilketak, gudak, lizunkeriak, gorrotoak, eta abar... Bizi ezindako mundua, itz baten esateko.

* * *

Ain eder eta egiz betea izan zan lez aren itzaldia, berari :ntzutean lenengo ixil-ixilik, konorte barik lez gelditu ziran guztiaketa bereala danak txalo bero ta luzeakaz txalotu eben jaun adoretzu ta jakitunaren itzaldia.

Paris'en arek esan ebana, esan geinke Euzkadi'n be.

Emen Eleizeak gauza goragarriak egin ditu. Gizonak ;izonkeriak egin ba'ditu be, Eleizeak edertasunik ederrenak, goragarriak goragarrienak egin ditu.

* * *

Kendu ba ori Euzkadi'tik, zer gero?

Ondoren ikaragarriak.

Or kili-koloka dabizan asko sartu baitez euran barruan eta ausnartu begie Kristau-sinismenaren muiña, eta zentzundun izango dira.

Gure gazte askok apurtxu bat Eleizatik aldendu arren, ba dabe oraindiño barru-barruan sinismen txingartxo bat.

Ori biztu bear da ainbat lasterren, Euzkadi indartu d aiten, ez aberastasunez, gizontasunez baiño.

GAURKO ARAZOAK

DIRUA JAINKOTZAT GAURKO ERITXIA

SEKSUA

Vaticano'k seksu-etikaz azalpena egitea, ona izan zan. Gai onetan pastoralgintza bearrezkoa dala, agiri da. Bear ba'da adierazmen luzetxuak katoliku batzuen artean egoera oni eutsi leikioe. Jainkoaren eta Eleizearen aurrean ipiñi geinken ardurarik aundieneko gauzea seksu-obenak dirala ustea izateari.

Eta ori ez da orrelan.

* *

DIRU

Izan be, nire ustez, oituren arriskurik aundiena sartaldeko katolikuentzat ez dago euren seksurantzako egoeran, euren dururantzako egoeran eta jokabideetan baino.

Bataz beste, katoliku geienak ez dabe seksua jainkotzat artzen.

* * *

ZEIN BEIÑEN?

Kultura maitekeriz loituan murgilduta eta aterbako seksu zirrikaz inguratuta be, kristiñauen garbitasuna buruausterik aundienetarikoa dala sinistea, zail egiten jaku.

Galga bako seksu-atsegin bizikerea egin eta eroatea, asmo benetako lez daukan inor, senean dagoanik ez dot ezagutzen.

* *

ARDURA BI

Seigarren eta bederatzigarren aginduak ez dauskuela ainbeste ardura emoten uste dot.

Askoz geiago ardura bear dausku, zelan bete lenengo agindua eta geure diru-zaletasuna eta orren eskabideak.

Esan dogunez, bere asmakizun guztian erantzuna seksua dala uste dauan katolikurik ez dot aurkitzen.

* * *

SARTALDEAN, DIRUA

Baiña ez nago ziur diruari buruz orrenbeste esan neikenik. Dirua sartaldeko katoliku diran eta ez diran guztientzat, buruausterik aundiena izaten da.

Gai ederra izan leiteke maixu-lan baterako auxe: Gure gizartearen jainkoa, dirua da.

Bataz besteko Europarrai esango ba'geuskie, agertu dagiskueta zintzoro zer bear dan eurak zoriontsuak izateko eta euratarrai zoriona emoteko, zer erantzungo leuskigue?

Egitazkoak izatekotan, uste dot geienak auxe esango leukeela: Dirua bear dot, zoriontsu egingo naben gauzak erosteko, ta dirua nire senide ta adiskideai atsegiña emon leikioen gauzak lortzeko.

* * *

LENENGOA ALA BIGARRENA?

Adierazgarri da, oraingo abesti erritar batek diñoana: «Eleizeak itanduten dausku Jainkoa dan dirua baiño lenago, eta bigarrena dala lenago erantzuten dabe guztiak».

Atsegin ta zoriontasunaren iturri dirua ba'da, eta diruan ipinten ba'dogu uste on eta itxaropena, orduan gure elburu ta jo-muga al dogun diru guztia geuganatzea izango da eta ezer inori emon barik, norbereko uts biurtuko gara.

Tamalez, olantxe ikusten dogu sartaldeko gizarte aurretuaren irakatsia: Ez dira kristiñauak dauken diruketeagaz, erosleak eta iruntzikorrek baiño.

LETONA

BETIKO ATSEDENA?

Kristiñauak, Eleizea, antxiñako aldietatik esan eta esan gabiltz otoitz au: «Emon egiozu, Jauna betiko atsedena». Edo beste au: «Bakean artu dagiala atsedena».

Otoitz au sakonez auznartzen ba'dogu, bere adieratzea jakin-guraz arduratu geintekuz.

Benetan nai izaten dogu mundu onetatik joaten dirantzetat betiko atsedena? Ezer egin barik egotea esan gura dau atsedeen orrek? Gauzak ondo pentzatu ezkeru, olako atsedeenik ez genduke eskatuko.

* * *

ALA BETIKO BIZITZEA?

Ez ete jaku ohea irudituko eurentzat betiko bizitzea? Bizitza atsegintsua, Jaungoikoa maitatzen eta goratzen eta geure antzeko gizakiakaz artuemon egokietan igarotzen Elan bizitza maitagarria ez ete ohea?

Itxaroten dogun erreñua ez da baketsu lotan dagozena, bizkortasun aundiz eta pozarren euren bizitza artzen labeneta baino.

Nire ustez otoitz orreine ordez beste oneik esan bear; endukez: «Emon egiezu, Jauna, betiko bizitza eta zure ergi dizdiratsuak argitu begiz beti. Betiko izan beitez zoriontsu».

* * *

BAIÑA ZORIONTSUA

Jaungoikoaren emaitza dogu bizitza eta sortaldeko; aran gizonoi, bizitza bizkortasunaren ekiñaldi lez agertzen aku; poza, zoriona ta atsegiña iruditzea ondo datorku.

Gogoratu dagigun, gaiñera, gizatalde asko neke-miñez p'eterik eta atsegin barik bizi dirala.

Esaterako, Erdi-Aroan eta lenengo kristiñauen artean, ur onetako bizitza gogorra ta latza zan.

Areintzako eskari egokia zan, atsaden-toki bat lortu nai ebana: Toki baketsua, ta lo zoragarria, munduko izate Hun eta saminkorraren ordez.

* * *

L ANAREN POZA

Gaurko gizarte aurreratu onetan bizi garenok, geienok brintzat, edozein lan egiteko prest gagoz eta orretan jarten dogu poza.

Betiko bizitza be, olako zerbait izan leiteke, bizitzearen pozez eta atsegiñez ekiñean ibiltea.

Dana dala, betiko bizitzearen izatea, Jaungoiko Aundiagaz bat egitean dago. Berak beteko dau oso-osoan gura, orion-egarria eta bere betetasunetik artuko dogu guztiok.

* * *

[AKIN EZIÑEKOA

Zelan azaldu an gizonak izango dauan betetasuna ta zoriona?

Paulo deunak zeaztu euskun zerbait. «Ez dau begiak inoz ikusi, ez belarriak entzun, ez gizonaren biotzak somau, Bera maite dabenetzat Jaungoikoak atonduta daukana.

EGILUZE'K

EUSKERAZALEAK

BATASUNA BAI, SAKABANATLERIK EI

Zugana nator, zugana, emen goian ikusten dozun idatz-puru berberaz idatzi zenduanagana, ain zuzen be bizkaierari eutsi ta indaremolle izan diran buru-Batzarrekoen arteko izan zaran orregana.

* *

Bizkaieraz idaz tea, bularra ta bizigarria berari emotea, ez dozu begi onez ikusten, eta atzagiltzakaz kosk-kosk atean deiturik, aterpea ta babesa eskatu dautzun illeroko apala, bere jaiotetxera bialdu dauskuzu zure etxe-koakaz izan zendun ASANBLADAN

artutako AKORDUZ, ezkabidun txakur baltza ba'litza lez, patxikokeri au bizkarrean ipiñirik: «Batasuna BAI, sakabanatzerik EZ».

* * *

Katuen marrau-miauak zezeillean eta astoen arrantzak orrillean entzutean, ez gara iñor larritzen, baiña Bilbo'n, titare bete atxur lur ez daukan uriburuan, babak lora batean ikustean, larritu ezezik arri gogortu gaitu.

Esan egiguzu bada, noiztik dan bizkaiera sakabanatzaile.

* * *

Batasuna eskatzen dauskuzu, batasuna ta alkartasuna gura neukez nik neuk be.

Aita ete dago baiña, etxetik igesian aldendu dan semeagaz batasuna egi-tera bearturik?

*

Eta oraingo au amaitzeko, itauntxu bat besterik ez.

Ez al dozu iñoizen baten entzun, belarri utsa zan astotzarrak mandoari esan eutsana?

Dabillanak, geldi ta bakean dagonari, sakabanatzaile; eta astoak mandoari, bclarri-aundi... Gorantziak emiozak Ellakuri'ko txakurrari.

LANDAJUELA'tar A.'k

ZER DA

Atzagiltza? Atzamarren zatiak lotzen dituan azur-alkatzea.

Ezkaia? Bazpi antzekoz agertzen dan gaisoa, gasteleraz tiña.

Gibel? Atzeko aldea, Laburdi'n, Naparroa'n eta Zuberoa'n. Mendiaren gibelean.

Kala? Itxas zabalean arraintzarako artzen dan tokia.

Ezten? Zulatzeko tresnea, zugeen gana pikatzeko.

Ganbela? Askea edo zerbait alboetara jausi barik eukiteko ontzia.

Txeka? Adarra joteko esaten dan irudia.

Zozkon? Gorputzaren izaera berezia.

Ekandua? Asabakandik, guraso zarrakandik datorren oiturea.

Buruzagi? Talde bateko nagusia edo agintaria, batez be gudarien artean nagusiena.

Amarratza? Itxasoko arriai sendo oratzen dautsen arraiña, pulpoa.

Zurrukutuna? Kardatutako artillearen moltzo biguna edo marmitakoa edo maita dan norbait.

†

Zezeillaren 24'an il zan Zeanuri'n
URIBE'TAR PETRA, ZER'en zuzen-
dari dogun Olaraz'tar Martin'en ama.

Samintasunean laguntzen dautsagu
Martin'eri eta bere amaren alde, gure
otoitza.

(Goian Bego)
Idazkolakoak

BIZKAI'KO
ADITZA IKASTEKO
«EUSKAL-ADITZA
BIZKAIERA»

2-argiteraldia
Salgai liburutegietan
eta egilleak berak
PUXANA

«EUSKERAZALEAK» ALKARTEAK EUSKAL IKASTARO BAT ERATUKO DAU


NOZ? Epailaren 27'tik, jorraillaren 8'ra arratsaldeko 7'retatik 9'retara.

NON? Eskolapioen ikastetxean (Alda. Rekalde 19' an)

NORTZUNTZAT? Euskeraz jakin eta euskal jakintzea gitxi sakondu dabeneztat.

GAIAK: Kondaira (Historia), Lutelestia (Geografia), Elertia (Literatura) eta Idaz-Arterpenak (Comentarios de textos).

IZENA EMON: «EUSKERAZALEAK» Colón de Larreategi, 14-2.º.



70 urte Bizkaiari laguntzen



CAJA DE AHORROS MUNICIPAL DE BILBAO
ONDO ERANTZUTEN DAU